

KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

IZENBURUA: Karmele Jaio idazlearen "Aitaren Etxea" liburua etenik gabe irakurtzea.

HELBURUAK: Erakundeko langileak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea eta berdintasunaren aldeko ekimenetan Erakundeko pertsonak inplikatzeko.

ENTITATE ARDURADUNA: Laboral Kutxa

Emakumezko langileen kopurua: 864 **Guztiraren gaineko portzentajea:** % 51,3

Gizonezko langileen kopurua: 819 **Guztiraren gaineko portzentajea:** % 48,7

WEBGUNEAK: www.laboralkutxa.com

JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK: Berdintasunerako aholkularitza eskaintzen digun enpresa, Mural ilustratua egiteko kontratatutakoa eta streaming bidez zabaltzeko ekarritako komunikazio-agentzia.

HASIERA EGUNA: 2021eko martxoaren 8a

HARREMANETARAKO PERTSONA Arrate Arkauz Arenaza

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 943719674

HARREMANETARAKO E-MAILA: arrate.arcauz@laboralkutxa.com

AZALPENA:

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, ekimen berritzaile eta parte-hartzaile bat egin dugu: Karmele Jaio idazlearen "Aitaren Etxea" liburua irakurri dugu etenik gabe, Erakundea osatzen dugun pertsonon artean. Ekimena martxoaren 8an bertan garatu dugu, eta goizeko 09:00etatik eguerdira bitarte iraun du. Irakurraldia amaitu eta gero, Karmele Jaio idazlearekin solasaldia egin dugu.

EMAITZAK (edo inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa):

Ekimenean zuzenean guztira 46 (32 emakume eta 14 gizon) pertsonak hartu dugu parte, ardura-maila, departamentu eta zonalde ezberdinetakoak. Aldi berean, Erakundeko pertsonok aukera eduki dugu ekimena *streaming* bidez jarraitzeko, eta horrek ekimenak Erakundean edukitako inpaktua areagotu egin du.

ALDERDI BERRITZAILEAK:

Azpiegitura eta baliabide teknologiko aldetik erronka handia izan da liburua goiz osoan zehar etenik gabe irakurtzea. Ekimenean parte hartu duen pertsona bakoitzak bere lantokitik hartu du parte, alegia, fisikoki kokapen geografiko ezberdinetatik; eta irakurraldia zuzenean jarraitzeko aukera eman zaigu langileoi, *streaming* bidez. Horrez gain, irakurraldiak iraun duen bitartean, “Make it visual” enpresako ilustratzaileek modu grafiko eta artistiko batean jaso dituzte istorioaren nondik norako nagusiak. Erabilitako hizkuntzari dagokionez, zonalde bakoitzaren jatorrizko hizkuntza errespetatu dugu; euskaraz, gaztelaniaz, katalanez nahiz asturieraz irakurri dugu eta, era honetan, Erakundean dugun aniztasuna balioan jarri nahi izan dugu.

ARRAKASTA-FAKTOREAK:

Ekimena aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da erakunde ezberdinen arteko lankidetzak: Berdintasunerako aholkularitza enpresa, mural ilustratzailea egin duena eta komunikazio-agentzia.

Gainera, ekimenean Zuzendaritzak berdintasunarekin hartutako konpromisoa azaleratu da, irakurraldian Laboral Kutxako lehendakariak, zuzendari nagusiak nahiz Zuzendaritzako beste kide batzuek hartu baitute parte; eta ekimena garatzeko beharrezkoak diren bitarteko ekonomikoak ezarri baitira.

PARTAIDETZA (jardunbide egokiaren irismena):

Ekimenean 46 pertsonak (32 emakume eta 14 gizon) hartu dute parte liburuaren pasarteak irakurtzeko. Pertsona hauek ardura-maila, departamentu eta zonalde ezberdinetakoak direnez, horrek ekimena Erakunde osoan zabaltzeko aukerak biderkatu ditu. Gainera, irakurraldia zuzenean jarraitzeko aukera eduki dugu Erakundeko pertsonen, *streaming* bidez.

Behin irakurraldia bukatu eta gero, ekimenaren bideo laburra sare sozialen bidez zabaldu da, honen eragina eta oihartzuna biderkatuz.

INTEGRATUA:

Genero-berdintasuna Erakundearen estrategiaren parte da. Berdintasunerako Plana Entitatearen Plan Estrategikoan zein urteko kudeaketa-planetan txertatua dago; eta urte hauetan guztietan zehar hainbat egitura sortu dira Plana aurrera eramateko: Planaren arduraduna (Gestio Sozialeko arduraduna ere badena), Planaren koordinatzailea, Berdintasun Batzordea...

2011z geroztik lan handia egiten ari da Erakundea berdintasunerako politikak bultzatzeko. Horren adierazgarri dira, esaterako, *Lidergo partekatu baterantz* egitasmoaren baitan azken urteetan egin

diren ekimenak: emakumeentzako Ahalduntze Eskola, lidergo-estiloaren genero-azterketa, emakumeen komunitatea, gizonentzako sentsibilizazio-tailerra, etab.

Dagoeneko Berdintasunerako lau Plan garatu dira, eta Planaren indarraldian zehar gizartea ez ezik Erakundeko pertsonak berdintasunaren beharraz sentsibilizatzeko hainbat ekimen garatzen dira; hain juxtu horietako bat da izan da aurtengo Martxoaren 8aren testuinguruan garatutakoa.

Ekimen honek, sentsibilizazioaren bidean Laboral Kutxak martxan duen estrategia laguntzen du, izan ere, azken urteetan aipatutako tailerren bidez emakumeen ahalduntzea sustatzeko nahiz gizonen berdintasunarekiko sentsibilizazioa lantzeko trebakuntza-saioak garatzen ari gara. Emakumeek genero-identitate, -rol eta -estereotipoek eurengan duten eraginaz hausnartzen dute. Gizonek, aldiz, Erakundeak sustatu nahi duen lidergo-estilo berriaren eta genero-berdintasunaren arteko harremana lantzen dute, eta genero-desberdintasunen inguruko sentsibilizazioa lantzen dute. “Aitaren Etxea” liburuak gai horietan sakontzen jarraitzeko eta elkarrekin gogoeta partekatua egiteko aukera ezin hobea eskaintzen digu; elkarrekin eta elkarrengandik ikastekoa.

TRANSFERIBILITATEA:

Ekimen hau berdintasunaren eremuko sentsibilizazioa landu nahi duten edozein erakundeetan aplikatzeko modukoa dela uste dugu, bereziki ekimenetan langileak inplikatu nahi dituztenetan eta, noski, horretarako azpiegitura teknikoa (ordenagailuak, Internetarako konexioa...) dutenetan.

BALIABIDEAK (pertsonak eta baliabide ekonomiko/finantzario eta materialak):


Ekimena egiteko beharrezko baliabide ekonomikoak ezarri ditugu, eta bereziki eragile hauen parte-hartzea nabarmendu nahi dugu:

- Berdintasuneko arduradunaren eta koordinatzailearen lana
- Kolaboratu duten enpresen lana: “Make it visual”, “Arteman” eta “Elhuyar”.
- Zuzendaritzaren inplikazioa
- Eta noski, Karmele Jaioren kolaborazioa

JARDUNBIDEA EGIAZTATZEN DUEN MATERIALA:

Atxikita doazkizue ekimenaren egunean ilustratzaileek egindako murala, komunikabide batean argitaratutako albistea eta sare sozialetan zabaldutako bideoa.


ZATOZ POTROKIK BAOZU
 OERKAREN ZEIN ALDETAN
 KOKATZEN ZAHUTZE?
 ISILTASUNA ZIOOR BAT DA
 ZEREN BELOUR ZAKA?
 OERKA HONEK ZEIN BAT
 BALDINTZATZEN OANTUEN



GIZONEN HITZA
 beti izan da niretzat
 AZKENA




denagatik sentitzen
 zara ERRUDUN




BELDURREAN
 hezi gaituzte.



MINETIK IHES...
 Urtean ezkatutako
 sentimenduak.



Ez gaude
 JOKO-ZELA
 berean.




EMAKUMEAK ISOLATZEA
 emakumeak AHULTZEA da.

BERDITASUNAREN
 ALDEKO KONPROMISOA
 ERAKUTSI



AITAREN ETXEA
 Kar mele Jaio



EMAKUMEAREN
 MINA sentitu ZUREA
 baitz bezala.




LEKU BERRI
 batetik ABIAITZEA




Bere INGURUA hasi da
 ERALDATZEN BERE
 BURUTIK hasita.




ZAZITZA erditik kendu
 eta NIRE BURUA
 AURKITZEA



AMORE
 ematen baduzu
 DENGOK goaz AITZERA



NIRE burua
 ONARTU besteen
 onarpenari itxaron gabe.



MINI
 BEGIETARA
 begiratu.

JARRERA IKMEA
 MUNDUARI HONDIK
 BEGOKATZEN OIOZU?
 NI IKUSTEA AZKEINEAN
 HEMEN OAUDE
 NORMALTASIMAK
 IKUSEZIN DHIKUTZEN
 OTU ERREALTATEA
 SUSTENBIAITZEN OITEN
 ZIMEIDUAK

HAU
 GERRA
 BAT
 DA.
 DENETAN
 LUZEENA

LABORAL
 kutxa



Gizontasun-eredu berriaren inguruan

KARMELE JAIOREN 'AITAREN ETXEA' LIBURUAREN IRAKURKETA SAIOA ANTOLATU DU GAUR LABORAL KUTXAK GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO ROL ETA ESTEREOTIPOEZ HAUSNARTZEKO

🐾 Oihana Pradoren erreportajea

Aspaldikoa da Laboral Kutxa erakundeak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde zabaldutako bidea. 1997. urtean, esate baterako, Emakunderen Erakunde Laguntzailearen ziurtagiria lortu zuen, aitorpen hori lortzen zuen lehen finantza-erakundea izanik.

Berdintasunaren inguruan gizartean sortu diren aldarrikapenekin bat egiteko asmoz, urtero, martxoaren 8a aitzakiatzat hartuz, ekimen desberdinak jarri ohi ditu martxan Laboral Kutxak. Gaurkoa, gainera, berezia izango da oso. Karmele Jaio idazlearen *Aitaren etxea* liburuaren etenik gabeko irakurketa saioa egingo da. Irakurraldia goizeko 9.00etan hasi eta eguerdira arte luzatuko da, eta erakundeko presidentek Txomin Garciak eta zuzendari nagusi Xabier Egibarrek parte hartuko dute.

Ekimen berritzailea eta, batez ere, parte-hartzailea izango da. Izan ere, Laboral Kutxako lankideek hartuko dute parte, eta zonalde bakoitzaren jatorrizko hizkuntza errespetatuko da; euskaraz, gaztelaniaz, katalanez nahiz asturieraz irakurtzeko aukera edukiko dute. Erakundearen aniztasuna balioan jartzea da asmoa. “Kapitulu adina irakurle behar genituen baina hori baino gehiagok eman du izena, ardura-maila, departamentu eta zonalde ezberdinetakoak, emakume nahiz gizonak, eta pozik gaudela ekimenak Erakundean eduki duen harrera onagatik. Izan ere, aniztasun horrek hobeto adierazten du berdintasunaren alde hartutako konpromiso kolektiboa. Bakoitzak hitza hartuz, baina aldi berean beste batzuei hitza emanez”, adierazi dute Laboral Kutxako arduradunek. Partaide batzuek euren bulegoetatik hartuko dute parte, eta euren lanlekua Arrasaten duten langileak, berriz, fisikoki egoitza bertan egongo dira. Gainera, saioa zuzenean *streaming* bidez jarraitzeko aukera ere egongo da.

Irakurraldiak irauten duen bitartean, Make it visual enpresako ilustratzaileek modu grafiko eta artistiko batean jasoko dituzte istorioaren nondik norako nagusiak. Karmele Jaio idazleak berak ere pasarte bat irakurriko du eta behin irakurraldia amaitutakoan solasaldia egingo dute berarekin. Liburu hau idaztera zerk bultzatu zuen, berdintasunaren ikuspegitik gaur egungo egoera nola ikusten duen, ditugun erronkez,

etab. jardungo dute. “Egia esan, guretzat ohorea da Karmele Jaio ekimenaren parte hartzea. Bere hizketaldiak irauten duen bitartean, zuzenean saioa jarraitzen ari diren pertsonak aukera edukiko dute txat bidez sortzen zaizkien galderak, hausnarketak, kezak... gu guztiokin partekatzeke”, esan dute. “*Aitaren etxea* liburuak gai horietan sakontzen jarraitzeko eta elkarrekin gogoeta partekatua egiteko aukera ezin hobea eskaintzen digu; elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko”, gaineratu dute.

Wolfen gela propioa Idazketa prozesuaz

Aitaren etxea 2019. urtean argitaratu zen, eta literatur arloko Euskadi Saria jaso zuen. Ismael eta Jasone ditu protagonista, biak idazleak, nahiz eta Jasonek senarraren itzalpean jarduten duen. Eleberriak hainbat gairen inguruan hausnartzeko bidea zabaltzen du, besteak beste, emakumeen ahalguntzea, pertsonen arteko komunikazioa eta egungo gizontasun-eredua. “Nobelak idazketari buruzko hausnarketa ere egiten du, batetik, idazlea emakumezkoa edo gizonezkoa izanik horrek dakartzan ezberdintasunei buruz, prestigio edo errekonozimendu aldetik, Virginia Wolfen gela propio hori lortu dugun edo ez; eta bestalde, idazketaren eremua egiaren eremua ere badela, alegia, nola agertzen diren prozesu horretan idazleari berari deseroso sentiarazten dizkieten kontuak”, argitu du Karmele Jaio.

Gaurko ekimenari buruz, pozik agertu da idazlea: “Irakurketa intimitatean egiten dugun gauza da eta ekimen honek intimitate publikora ateratzeko aukera ematen dio nobelari. Gainera, ahots ezberdinen irakurketa egitea oso aproposa da, izan ere, liburuak munduari ikuspegi desberdinetatik begiratu ahal diogula kontatu nahi du”.

Ekimen honek sentsibilizazioaren bidean Laboral Kutxak martxan duen estrategia laguntzen du, izan ere, azken urteetan emakumeen ahalguntzea sustatzeko nahiz gizonen berdintasunarekiko sentsibilizazioa lantzeko trebakuntza-saioak garatzen ari dira. Emakumeek genero-identitate, rol eta estereotipoek euren gain duten eraginaz hausnartzen dute.



“Etenik gabeko irakurketa honek nobelari ahotsa emango dio, intimitatean egiten duguna, publikora eramanez”

Karmele Jaio
Idazlea

IV. Berdintasun Plana Funtsezko bide-orria

Laboral Kutxan duela 20 urte baino gehiago hasi ziren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean. Iaz onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, eta hori da berdintasunerantz urratsak egiten jarraitzeko bide-orria. Orain arte martxan jarri diren ekimenak egonkortzea eta sendotzea; berdintasunaren aldeko ekimenetan emakume eta gizon gehiago inplikatzeko; eta erakunde berdinezale gisa aitzindari bilakatzea bai erakundearen barruan, bai gizartearen begira. Horiek dira, hain zuzen, azkeneko planaren helburu nagusiak. Hitz gutxitan esanda, berdintasuna erakunde osoan zehar zabaltzea da xedea.

Bestalde, eta Laboral Kutxa berdintasunaren aldeko agente aktibo den aldetik, bere konpromisoa kanpo-harremanetan ere islatzen da. Hori horrela, Emakundek sortutako Bai Sarean elkarlanerako gunean parte hartzen du. Berdintasunaren aldeko entitate-laguntzaileek osatzen dute aipatu gunea, lan-merkatuan genero-arrakala desagerraraztea helburu duten enpresa eta erakundeak alegia. ●

Irakurketa saioa 9.00etan,
hasiko da eta ekimena
eguerdira arte luzatuko da.
Ondoren solasaldia
egongo da idazlearekin

20 urte baino gehiago daramatza
Laboral Kutxak berdintasunaren
alorrean lanean eta iaz
IV. Berdintasun Plana
onartu zuen



KARMELE JAIOREN AITAREN ETXEA LIBURUAREN IRAKURKETA JARRAITUA

[Bideoaren esteka hemen](#)



0:00:01



0:02:18

